



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

**Resolución 7/2018 ebazpena**

Recursos 8/2018 - 13/2018 errekurtsoak

CLECE SA enpresak, batetik, eta ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SERVICIOS PARA LA DEPENDENCIA (AESTE) elkarteak, bestetik, kontratazio alorreko errekurtso bereziak aurkeztu zituzten ondorengo kontratuko baldintza administratibo berezien agiriaren aurka: KABIA foru organismo autonomoaren Gobernu Batzordeak 2018ko uztailaren 27an onartutako "Azkoitiko adineko pertsonentzako egoitza zentroan egoitza, psikogeriatria, eguneko zentro eta tutoretzapeko etxebizitza zerbitzuak ematea" izeneko kontratuan (espediente zk.: 1GBE0727/2018). Horien inguruan Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, gaurko egunean burututako saioan, gorago adierazi diren kideak bertan zirela, aho batez onartu du ondorengo erabakia.

En los recursos especiales en materia de contratación interpuestos, de un lado, por CLECE SA, y de otro, por la ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SERVICIOS PARA LA DEPENDENCIA (AESTE), contra el pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato de "servicios de residencia, psicogeriatría, centro de día y apartamentos tutelados en el centro residencial para personas mayores de Azkoitia", aprobado por la Junta de Gobierno del Organismo Autónomo Foral KABIA el día 27 de julio de 2018 (expediente nº 1GBE0727/2018), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Auzitegi honen erregistroan aurkeztutako idatziaren bidez, CLECE SA enpresak kontratazio alorreko errekurtso berezia aurkeztu zuen 2018ko abuztuaren 28an, ebazpen honen goiburuan aipatutako baldintza agiriaren aurka, eta errekurtso horri 8/2018 erregistro zenbakia eman zitzaion.

**BIGARRENA.-** 2018ko abuztuaren 29an, Auzitegiak ofizioa bidali zion KABIA foru organismo autonomoari, errekurtsoaren kopia igorritz, eta eskatu zion bidaltzeko, batetik, espedientea eta, bestetik, errekurtsoari eta bertan eskatzen zen kautelazko neurriari buruzko txostena.

**HIRUGARRENA.-** 2018ko irailaren 3an,

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal, el 28 de agosto de 2018 CLECE SA interpuso recurso especial en materia de contratación contra el pliego referido en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 8/2018.

**SEGUNDO.-** El 29 de agosto de 2018 el Tribunal dirigió oficio al Organismo Autónomo Foral KABIA, remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar que en él se solicitaba.

**TERCERO.-** El día 3 de septiembre de 2018 tuvo



Auzitegiaren erregistroan sarrera eman zitzaion ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SERVICIOS PARA LA DEPENDENCIA (AESTE) elkarteak 2018ko abuztuaren 27an baldintza agiri beraren aurka KABIA foru organismo autonomoaren aurrean aurkeztu zuen kontratazio alorreko errekurtso bereziari, zeinari 13/2018 erregistro zenbakia eman zitzaion.

**LAUGARRENA.-** Egun horretan bertan Auzitegian jaso ziren kontratazio espediente eta KABIA organismoak bi errekurtsoen eta bertan eskatzen ziren kautelazko neurrien inguruan egindako txostenak.

**BOSGARRENA.-** Auzitegiak 2018ko irailaren 10ean emandako ebazpenaren bidez, eten egin ziren kontratazio prozeduraren izapideak, proposamenak aurkezteko epearen amaieratik errekurtso hau ebatzi arte.

**SEIGARRENA.-** Auzitegiak zuzentzeko errekerimendua egin ondoren, irailaren 13an, AESTE elkarteak errekurtsoa jartzeko idatzia aurkeztu zuen, behar bezala sinatuta.

**ZAZPIGARRENA.-** Bi errekurtsoak berdinak zirenez, Auzitegiak, 2018ko irailaren 20ko akordioaren bidez, ofizioz erabaki zuen biak prozedura bakarrean metatzea.

**ZORTZIGARRENA.-** Errekurtsoen berri eman zitzaion proposamena aurkeztu zuen lizitatzailerakari (BIHARKO GIPUZKOA, SL), eta bost eguneko epea ezarri zen alegazioak aurkezteko. Epe hori amaituta, ez da erreklamaziorik aurkeztu.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoaren onargarritasuna

**LEHENENGOA.-** Bi errekurtsoak 10.018.591,24 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu kontratu baten baldintza administratibo berezien agiriaren aurka aurkeztu dira.

entrada en el registro de este Tribunal el recurso especial en materia de contratación interpuesto el 27 de agosto de 2018 ante el Organismo Autónomo Foral KABIA contra el mismo pliego por la ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SERVICIOS PARA LA DEPENDENCIA (AESTE); recurso que quedó registrado con el número 13/2018.

**CUARTO.-** El mismo día 3 de septiembre de 2018 se recibieron en el Tribunal el expediente de contratación y los informes de la entidad de contratación KABIA acerca de ambos recursos y de la medida cautelar que en ambos se solicitaba.

**QUINTO.-** Mediante Resolución de este Tribunal de 10 de septiembre de 2018 se suspendió la tramitación del procedimiento de contratación desde la finalización del plazo para la presentación de proposiciones hasta que se resuelva el presente recurso.

**SEXTO.-** Previo requerimiento de subsanación realizado al efecto por este Tribunal, el 13 de septiembre AESTE presentó el escrito de interposición del recurso debidamente firmado.

**SÉPTIMO.-** Dada la identidad existente entre ambos recursos, mediante acuerdo de 20 de septiembre de 2018 el Tribunal dispuso de oficio su acumulación en un solo procedimiento.

**OCTAVO.-** Se dio traslado de los recursos a la única licitadora que había presentado proposición (BIHARKO GIPUZKOA, SL), concediéndole un plazo de cinco días para formular alegaciones. Transcurrido el plazo no se ha presentado ninguna.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** Los dos recursos se interponen contra el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 10.018.591,24 euros.



Beraz, errekurritutako agiriaren aurka kontratazio alorreko errekurtsu berezia jar daiteke, hala xedatzen baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 44. artikulua 1.a) eta 2.a) ataletan.

Auzitegi honi dagokio errekurtsu horren inguruko erabakiak hartzeko eskumena, 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, kontratazio alorreko errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak, 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Bi errekurtsuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu dira, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta agiriak 2018ko abuztuaren 6an argitaratu zirela KABIAREN kontratatzailearen profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman.

**HIRUGARRENA.-** CLECE SA enpresa eta AESTE elkarte legitimituta daude errekurtsu aurkezteko, SPKLk 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, bien eskubideak edo interes legitimoak, norbanakoak nahiz kolektiboak, eraginda suertatu baitaitezke errekurtsuaren xede den erabakiaren ondorioz.

Errekurtsu aurkezteko idatziarekin batera CLECE SA enpresak erantsitako eskritura publikoaren eta estatutuen arabera, enpresaren xedetako bat da kontratuak jasotzen duen zerbitzua ematea, eta lizitaziorako proposamena aurkeztu du errekurtsu jarri ondoren, non iragarri baitzuen lizitazioan parte hartzeko asmoa.

AESTE elkarteari dagokionez, errekurtsuarekin batera aurkeztutako estatutuen arabera, kontratuaren xedearekin lotutako interesak ordezkatzeko dituen elkarte bat da, kontratuari dagozkion baldintza agiriak aurkaratu ditu eta elkartekideen interes kolektiboak defendatzen ditu; beraz, betetzen ditu 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuaren alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien

Por lo tanto, el pliego recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

La competencia para conocer de los recursos corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** Ambos recursos se han interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de KABIA, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 6 de agosto de 2018.

**TERCERO.-** Tanto la empresa CLECE SA como la asociación AESTE están legitimadas para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, pues sus derechos o intereses legítimos, individuales o colectivos, pueden resultar afectados por la decisión objeto del recurso.

Según la escritura pública y estatutos que CLECE SA acompaña al escrito de interposición del recurso, su objeto social abarca la prestación del servicio objeto del contrato, y ha presentado proposición a esta licitación con posterioridad a la interposición del recurso en el que ya anunció su interés en participar.

En cuanto a AESTE, de acuerdo con los estatutos que acompaña al escrito de interposición del recurso, se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados, por lo que concurren los requisitos exigidos por el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de



erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan ezartzen dituen eskakizunak.

### Auziaren mamia

**LAUGARRENA.-** KABIA foru organismo autonomoaren Gobernu Batzordeak, 2018ko uztailaren 27ko akordioaren bidez, onartu zuen Azkoitiko adineko pertsonentzako egoitza zentroan egoitza, psikogeriatria, eguneko zentro eta tutoretzapeko etxebizitza zerbitzuak emateko kontratazio espedientea, kontratua arautuko duten baldintza administrazio berezien agiria eta ezaugarri teknikoaren agiria jasotzen dituen, eta erabaki zuen esleipen prozedura irekiari hasiera ematea.

Eskaintzak balioesteko, baldintza administrazio berezien agiriko ezaugarrien taulako 19. atalak esleipen irizpide hauek ezartzen ditu:

Balio judizioaren bidez balioestekoak diren irizpideei dagokienez, gehienez ere 48 puntu emango zaizkio lizitatuzaileek aurkeztutako proposamen teknikoari.

Formulak aplikatuz ebaluatzekoak diren irizpideak 19.2 atalean balioesten dira 52 punturekin, ondorengo moduan banakatuta:

- a. Prezioa: 42 puntu.
- b. Hizkuntza berdintasuna (euskara): 5 puntu.
  - Bikain goi maila: 5 puntu.
  - Bikain tarteko maila edo Bai Euskarari "Zerbitzua eta Lana Euskaraz": 3 puntu.
  - Bikain oinarrizko maila edo Bai Euskarari "Zerbitzua Euskaraz": 1 puntu.
- c. Solaskide teknikoaren esperientzia: 5 puntu.

**BOSGARRENA.-** Kontratazio espediente honetako baldintza administrazio berezien agiriaren aurka aurkeztu dira aztertzen ari diren bi errekurtsoak, zeintzuetan baliogabetu nahi den hizkuntza berdintasunari dagokion esleipen irizpidea, uste delako ez duela loturarik kontratuaren xedearekin, ez duela bermatzen kalitate-prezioa erlazioaren hobekuntza, eta

decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre.

### Fondo del asunto

**CUARTO.-** Por Acuerdo de 27 de julio de 2018 la Junta de Gobierno del Organismo Autónomo Foral KABIA aprobó el expediente de contratación de los servicios de residencia, psicogeriatría, centro de día y apartamentos tutelados en el centro residencial para personas mayores de Azkoitia, que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y de prescripciones técnicas (PPT) que regirán el contrato, y dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación abierto.

Para valorar las ofertas el apartado 19 del cuadro de características del PCAP establece los siguientes criterios de adjudicación:

Los criterios a valorar mediante juicio de valor valoran con un máximo de 48 puntos la propuesta técnica a presentar por los licitadores.

Los criterios evaluables mediante la aplicación de fórmulas se valoran en el apartado 19.2 con 52 puntos, que se desglosan del siguiente modo:

- a. Precio: 42 puntos.
- b. Igualdad lingüística (euskera): 5 puntos.
  - Bikain nivel superior: 5 puntos.
  - Bikain nivel medio o Bai Euskarari "Zerbitzua eta Lana Euskaraz": 3 puntos.
  - Bikain nivel básico o Bai Euskarari "Zerbitzua Euskaraz": 1 punto.
- c. Experiencia de la persona interlocutora técnica: 5 puntos.

**QUINTO.-** Contra el PCAP de este expediente de contratación se han interpuesto los dos recursos que se analizan, en los que se pretende la anulación del criterio de adjudicación relativo a la igualdad lingüística por considerar que no está vinculado al objeto del contrato ni garantiza una mejora en la relación calidad-precio, además de resultar contrario a los principios de igualdad,



berdintasun, gardentasun eta lehia librearen printzipioen aurkakoa delako. transparencia y libre competencia.

Errekurtsoetan eskatzen da deuseztatzeko edo deuseztat jotzeko esleipen irizpide hori, eta prozeduran atzera jotzeko baldintza administratiboen agiria onartu aurreko uneraino. Halaber, eskatzen da beste baldintza agiri batzuk onartzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko aurreikuspenekin bat datozenak, kontratuaren esleipen irizpideei eta lizitazioaren printzipio gidariei dagokienez.

**SEIGARRENA.-** Kontratatzaileak, prestatutako txostenetan, proposatzen du bi errekurtsoak ezestea, haren ustez, laburbilduz, aurkaratutako esleipen irizpideak lotura duelako kontratuaren xedearekin, izan ere balioesten diren ziurtagirien bidez enpresa lizitatzailerak hizkuntza berdintasunaren ikuspegia txertatuta izateak hobetu eta bermatu egingo baitu eta balioa emango baitio eskaini beharreko zerbitzuari eta erabiltzaileen eskubideen babesari; eta hobekuntza hori, gainera, objektiboki egiaztatuta dago.

Era berean dio esleipen irizpide horrek ez dituela berdintasun, gardentasun eta lehia librearen printzipioak urratzen, edozein enpresa aurkez baitaiteke balioesten diren ziurtagirietakoren bat eskuratzeko, eta ziurtagiri horietako bat izateak kontratuaren xedea behar bezala betetzearen berme handiagoa ematen dio KABIARI.

**ZAZPIGARRENA.-** 9/2017 Legearen 145. artikularen 1. eta 2. ataletan aurreikusitakoaren arabera, kontratuen esleipena, oro har, esleipen irizpide anitz erabiltzaile burutuko da, kalitate-prezio erlaziorik onena oinarri hartuta, eta kalitate-prezio erlaziorik onena kontratazio organoak ezarritako irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da, bertan kontratuaren xedearekin lotutako ingurumen alderdiak edo alderdi sozialak barne hartzeko aukera izanda.

Halaber, 4. atalean xedatzen da kontratazio

En el suplico de los escritos de interposición se solicita que se anule o declare la nulidad del referido criterio de adjudicación y se retrotraiga el procedimiento al momento anterior a la aprobación del PCAP, con la aprobación de otros pliegos acordes a las previsiones de la LCSP en lo relativo a los criterios de adjudicación del contrato y a los principios rectores de la licitación.

**SEXTO.-** La entidad contratante, en sus respectivos informes, propone la desestimación de ambos recursos por considerar, en síntesis, que el criterio de adjudicación impugnado está vinculado al objeto del contrato en la medida en que el hecho de tener integrada en la empresa licitadora la perspectiva de la igualdad lingüística a través de los certificados que se valoran va a redundar en una mejora, garantía o valor añadido en la prestación del servicio y en la protección de los derechos de los usuarios del servicio, mejora que además está acreditada objetivamente.

Añade que ese criterio de adjudicación tampoco vulnera los principios de igualdad, transparencia y libre competencia, debido a que cualquier empresa puede acceder a la obtención de uno de los certificados que se valoran y el disponer de uno de estos certificados ofrece a KABIA mayores garantías de una ejecución efectiva del objeto del contrato.

**SÉPTIMO.-** El artículo 145 LCSP prevé en sus apartados 1 y 2 que la adjudicación de los contratos se realizará con carácter general utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio, y que la mejor relación calidad-precio se evaluará con arreglo a criterios económicos y cualitativos establecidos por el órgano de contratación, que podrán incluir aspectos medioambientales o sociales vinculados al objeto del contrato.

El apartado 4 añade que los órganos de



organoek zainduko dutela beren beharretara ahalik eta hoberen egokitzen diren kalitate handiko obrak, hornidurak eta zerbitzuak eskuratzea ahalbidetzen duten esleipen irizpideak ezartzea.

Esleipen irizpideek bete behar dituzte 5. atalean aurreikusten diren baldintza hauek:

*"a) Edozein kasutan ere kontratuaren xedearekin lotura izan beharko dute, artikuluko honen hurrengo atalean adierazitako moduan.*

*b) Modu objektiboan adierazita egon beharko dute, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak erabat errespetatuta, eta ez diote kontratazio organoari mugagabeko erabakitze askatasunik emango.*

*c) Eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan ebaluatu ahal izatea bermatu beharko dute eta lizitatuzaileek aurkeztutako informazioa modu eraginkorrean egiaztatzea ahalbidetzen duten espezifikazioekin batera etorriko dira, eskaintzek esleipen irizpideak zein neurritan betetzen dituzten ebaluatzeko xedearekin (...)"*

6. atalaren arabera, esleipen irizpide batek kontratuaren xedearekin lotura duela ulertuko da "kontratu horren arabera burutu beharreko prestazioak aipatzen dituenean edo barne hartzen dituenean, edozein alderdiri eta bizi-zikloaren edozein faseri dagokionez (...)"

**ZORTZIGARRENA.-** Bestalde, 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate bakoitzak 17. atalean ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, gutxienez, jasoko dira, besteak beste, kontratazio arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar litzuzkeen antzeko hizkuntz baldintzak bermá

contratación velarán por que se establezcan criterios de adjudicación que permitan obtener obras, suministros y servicios de gran calidad que respondan lo mejor posible a sus necesidades.

Los criterios de adjudicación deben cumplir los siguientes requisitos previstos por el apartado 5:

*"a) En todo caso estarán vinculados al objeto del contrato, en el sentido expresado en el apartado siguiente de este artículo.*

*b) Deberán ser formulados de manera objetiva, con pleno respeto a los principios de igualdad, no discriminación, transparencia y proporcionalidad, y no conferirán al órgano de contratación una libertad de decisión ilimitada.*

*c) Deberán garantizar la posibilidad de que las ofertas sean evaluadas en condiciones de competencia efectiva e irán acompañados de especificaciones que permitan comprobar de manera efectiva la información facilitada por los licitadores con el fin de evaluar la medida en que las ofertas cumplen los criterios de adjudicación.(...)"*

Según el apartado 6, se considerará que un criterio de adjudicación está vinculado al objeto del contrato "cuando se refiera o integre las prestaciones que deban realizarse en virtud de dicho contrato, en cualquiera de sus aspectos y en cualquier etapa de su ciclo de vida (...)"

**OCTAVO.-** Por su parte, el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece en su artículo 18 que los Planes de Normalización del Uso del Euskera constituyen la formulación de la política lingüística de la entidad en orden al cumplimiento de los objetivos de normalización establecidos en el artículo 17 y deberán recoger al menos, entre otras determinaciones, las medidas contempladas en materia de contratación, en particular, las tendentes a garantizar que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con el usuario y se ejecuten por terceros sean prestados a los ciudadanos en condiciones lingüísticas



daitezen.

Aurreikuspen hori betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko ekainaren 26an onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruan (2018-2022 aldirako) euskararen erabilera normalizatzeko plana (GAOn argitaratua 2018ko uztailaren 26an, eta akats zuzenketa 2018ko abuztuaren 3an), zeinak, 8. artikuluan, ezartzen dituen hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak kontratazio administratiboen kasuan:

*«1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura esparruetan eta bi hizkuntza ofizialak berdintasunean erabili ahal izateari dagokionez, kontratu publiko baten bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Foru Aldundiak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.*

*2. Kontratuen baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar dira.*

*3. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere kontratu publikoetan hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betearaziko du. Horrenbestez, kasu bakoitzean dagozkion hizkuntza betebeharrak ezarri behar dira baldintza administratibo berezien agirian, eta ezaugarri teknikoen agirian, sinatzen den kontratuan edota kontratazioa arautzeko bestelako agirian.*

*4. Hizkuntza ofizialtasun bikoitza betearazteko betebeharrak kontratu bakoitzaren gauzatze baldintzei loturik egon behar dira, eta irizpide hauetan oinarritu behar dira:*

*a) Proporzionaltasun printzipioa erabili behar da, kontratu bakoitzaren ezaugarriak, helburua eta hartzaileak kontuan izanda.*

*b) Kontratuaren bitartez bete beharreko zereginekin lotura zuzena izan behar dute.*

*c) Enpresak bere kabuz nahiz besteren bitartez betetzeko modukoak izan behar dira.*

similares a las que sean exigibles para la administración correspondiente.

En cumplimiento de esa previsión, el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos para el período 2018-2022, aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de junio de 2018 (publicado en el BOG de 26 de julio de 2018 y su corrección de errores en el de 3 de agosto de 2018), establece en el artículo 8 los siguientes criterios de uso de las lenguas oficiales en la contratación administrativa:

*“1. Dentro de los ámbitos de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en lo que atañe al derecho al uso de las dos lenguas oficiales, se reconoce a la ciudadanía el derecho a recibir los servicios en los que medie un contrato público en términos idénticos a si fueran prestados por la propia Diputación Foral.*

*2. Los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas se publicarán en las dos lenguas oficiales.*

*3. La Diputación Foral de Gipuzkoa hará cumplir en sus contratos públicos el régimen de doble oficialidad lingüística. En consecuencia, establecerá en cada caso los requerimientos lingüísticos en los pliegos de cláusulas administrativas particulares y en los pliegos de prescripciones técnicas, en el contrato que se suscriba o en los documentos que rijan la contratación.*

*4. Los requerimientos relacionados con la doble oficialidad lingüística estarán vinculados a las condiciones de ejecución de cada contrato, y se basarán en los siguientes principios:*

*a) Regirá el principio de proporcionalidad, en función de las características, objeto y personas destinatarias en cada caso.*

*b) Estarán directamente ligados a los cometidos a llevar a cabo mediante el contrato.*

*c) Deberán ser acreditables por la empresa tanto con medios propios como ajenos.*



(...)"

**BEDERATZIGARRENA.-** Aurreikuspen horiek betez, kontratu honetako baldintza administrazio berezien agiriak, 38.2.4 klausulan, ezartzen ditu kontratua gauzatzeko eskatzen diren hizkuntza baldintzak:

*"1.- Euskadiko Autonomia Estatutuko 6. artikuluan xedatutako bi hizkuntza ofizialen araubidearen mende dago kontratu hau, hain zuzen ere 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen esparruko euskararen erabilera normalizatzeko planak xedatutako moduan.*

*2.- Esleipendunak berariazko Euskara Plan proposamena aurkeztu beharko du, Kabiaren oniritzia jaso dezan gehienez bi hilabeteko epean, kontratua sinatzen den momentutik aurrera.*

*Planak, gutxienez, ondorengoari aipu egin beharko dio: erakundearen egoera soziolinguistikoaren ebaluazioa eta diagnostikoa Erreferentzi Marko Estandarraren arabera, exekuzioaren ardatz eta mailak eta haien lehenespena, urteko kudeaketa plana, Euskara Planaren ebaluazioa, hobekuntza-emaizten komunikazioa eta Euskara Planaren berrikuspena.*

*Halaber, adierazitako maiztasunarekin, plan horren emaitzei, aplikazioari, jarduketei eta horren onuradun diren pertsonen buruzko ebaluazio txosten bat aurkeztu beharko da.*

*3.- 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluko d) letran xedatzen ditu kontratazio arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarrenek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion Administrazioak berak bete beharko lituzkeen hizkuntza baldintzen antzeko baldintzak berma ditzen.*

*4.- Kaban, kalitatezko zaintza eta arreta ez da ulertzen hizkuntza berdintasuna txertatu gabe. Hortaz, Kabiaren hizkuntza irizpide eta helburu orokorrak dira:*

(...)"

**NOVENO.-** En aplicación de tales previsiones, el PCAP del presente contrato determina en su cláusula 38.2.4 las siguientes condiciones lingüísticas que se exigen para la ejecución del contrato:

*"1.- Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6 y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por el Plan de normalización del uso del euskera en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de sus organismos autónomos que se encuentre en vigor.*

*2.- La adjudicataria habrá de presentar una propuesta de Plan de Euskara específico a Kabia que deberá tener el visto bueno de Kabia en el plazo máximo de dos meses desde la formalización del contrato.*

*El plan deberá detallar, como mínimo, la evaluación y diagnóstico de la situación sociolingüística de la entidad de acuerdo al Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas, los ejes y grados de ejecución y su priorización, el plan de gestión anual, la evaluación del Plan de Euskara, la comunicación de las mejoras y la revisión del Plan de Euskara.*

*Asimismo, con la frecuencia establecida, se deberá presentar una memoria de evaluación sobre los resultados, aplicación, acciones y personas beneficiarias del mismo.*

*3.- De conformidad con la letra d) del artículo 18 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, referido a las medidas contempladas en materia de contratación, habrá de garantizarse que aquellos servicios públicos que conlleven una relación directa con las personas usuarias y se ejecuten por terceras personas sean prestados a la ciudadanía en condiciones lingüísticas similares a las que sean exigibles para la Administración correspondiente.*

*4.- En Kabia, los cuidados y la atención no se consideran de calidad si no está integrada la igualdad lingüística. Por tanto, los principales criterios y objetivos lingüísticos de Kabia son:*





• Zerbitzu hizkuntza erabiltzaileak hautatutako bi hizkuntza ofizialetako batean izango da, betiere, euskararen erabilera sustatuz.

• Lan hizkuntza euskara izango da nagusiki.

Hori dela eta, derrigorrezkoa izango da betetzea Kabiako Gobernu Batzordeak 2017ko maiatzaren 15ean onartutako hizkuntza berdintasuna kudeatzeko jarraibidea eta egiten diren egokitzeak:

<http://www.kabia.eus/es/euskara>

5.- Gipuzkoako gizarte zerbitzuen maparen arabera, Foru eskumeneko adinekoentzako egoitza zentroak eremuen arabera egokitzen dira. Hori horrela, eremukako hizkuntza ezagutzako datuak hartuko dira kontuan:

• El idioma de servicio será aquel que la persona usuaria elija de entre los dos idiomas oficiales, impulsando siempre el uso del euskera.

• El idioma de trabajo será principalmente el euskera.

Por ello, será de obligado cumplimiento la instrucción para la gestión de la igualdad lingüística aprobada por la Junta de Gobierno de Kabia el 15 de mayo de 2017 y las modificaciones que se realicen de la misma:

<http://www.kabia.eus/es/euskara>

5.- Según el mapa de servicios sociales de Gipuzkoa, los centros residenciales para personas mayores de competencia foral se adaptan a las circunstancias de cada ámbito. Por ello, se tendrán en consideración los datos de conocimiento de euskera de cada ámbito:

EGOITZA ZENTROA/ CENTRO RESIDENCIAL	Egoitza zentroari dagokion eremua-indizea/ Índice y área correspondiente a cada centro residencial	
	EREMUA/ COMARCA	Derrigortasun INDIZEA/ ÍNDICE de preceptividad
Azkoitia	Urola Kosta	%85,20

6.- Hizkuntza gaitasunari dagokionez, indize horietara egokitzeko prozesuan, ondorengo lehentasunak izango dira kontuan:

1. Lehenengo lehentasun maila:

- Harrerako langileak, sendagileak, psikologoak, gizarte langileak, erizain diplomatua, geriatriako laguntzaileak, zuzendaria, koordinatzailea, administrazioa.

2. Bigarren lehentasun maila:

- Garbiketa eta plantxa, mantenuko langileak, sukaldeko langileak, eta antzerakoak.

7.- Erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta 86/1997 Dekretuak 18. artikuluko d) letran xedatutakoaren arabera, kontratura esleitutako langileek honako hizkuntza gaitasun hau egiaztatu beharko dute:

6.- En lo que concierne a la competencia lingüística, se tendrán en consideración las siguientes prioridades para su adaptación a dichos índices:

1. Prioridad principal:

- Trabajadores/as de recepción, médicos, psicólogos, trabajadores/as sociales, enfermero/a diplomado/a, auxiliares de geriatría, director/a, coordinador/a, administrador/a.

2. Prioridad secundaria:

- Limpieza y plancha, trabajadores/as de mantenimiento, trabajadores/as de cocina y similares.

7.- Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las personas usuarias, de conformidad con la letra d) del artículo 18 del Decreto 86/1997, la competencia lingüística que deberían acreditar las personas trabajadoras asignadas al contrato será la siguiente:



<i>Lanpostuak</i> <i>Puestos de trabajo</i>	<i>Europako hizkuntzen erreferentzia markoa</i> <i>Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas<sup>1</sup></i>
<b>ASISTENTZIAZKOA / ASISTENCIAL</b>	
<i>Arreta laguntzailea / Auxiliar asistencial</i>	B2
<i>Jangela laguntzailea / Auxiliar de comedor</i>	B2
<i>Atal burua / Responsable de Sección</i>	C1
<i>Gobernatzailea / Gobernanta-e</i>	B2
<i>Erizaina edo EUD / Enfermera o DUE</i>	C1
<i>Mediku orokorra / Médico-a general</i>	C1
<i>Mediku espezialista / Médico-a especialista</i>	C1
<i>Monitore okupazionala / Monitor-a ocupacional</i>	C1
<i>Monitorea / Monitor-a</i>	C1
<i>Fisioterapeuta / Fisioterapeuta</i>	C1
<i>Gizarte laguntzailea / Asistente Social</i>	C1
<i>Psikologoa / Psicólogo</i>	C1
<i>Psikiatra / Psiquiatra</i>	C1
<b>KUDEAKETA / GESTIÓN</b>	
<i>Zuzendaria / Director-a</i>	C1/C2
<i>Zuzendari teknikoa / Director-a técnico-a</i>	C1
<i>Koordinatzailea / Coordinador-a</i>	C1
<i>Administratzailea / Administrador-a</i>	C1
<i>Administraria / Administrativo-a</i>	C1
<b>EZ ASISTENTZIAZKOA / NO ASISTENCIAL</b>	
<i>Harrera / Recepción</i>	B2
<i>Atezaina / Conserje</i>	B2
<i>Mantentzea / Mantenimiento</i>	B2
<i>Gidaria / Conductor-a</i>	B2
<i>Podologoa / Podólogo-a</i>	B2
<i>Ile apaintzailea / Peluquero-a</i>	B2
<i>Farmazialaria / Farmacéutico-a</i>	C1
<b>BESTE LANGILE BATZUK / OTRO PERSONAL</b>	
<i>Garbiketa / Limpieza</i>	B1
<i>Ikuztegia / Lavandería</i>	B1
<i>Sukaldea / Cocina</i>	B1
<i>Zerbizaria / Camarero-a</i>	B2

8.- Kontuan hartuta egun zerbitzuak ematen dituzten langileen subrogazio kasu baten aurrean gaudela, eta horrez gain, gaur egun horiek guztiek ez dutela herritarrei hizkuntza berdintasuna bermatzeko moduko hizkuntza gaitasun maila betetzen, esleipendunak beharrezko prestakuntza eman beharko die langile horiei, eskatzen zaien hizkuntza gaitasuna lortzeko, bereziki egoiliarrekin eta horien senideekin harreman zuzena duten langileei.

8.- Teniendo en cuenta que estamos ante un caso de subrogación del personal que actualmente realiza el/los servicio/s, y, visto que en la actualidad no todo el personal cumple con la competencia lingüística exigida para garantizar la igualdad lingüística de la ciudadanía, la adjudicataria deberá proporcionar a estos/as trabajadores/as la formación necesaria para alcanzar la capacidad lingüística que se les exija, especialmente a aquellos/as que tengan relación directa con las personas residentes y sus familiares.

<sup>1</sup> [http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca\\_ele/marco/](http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/marco/)  
[http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/tituluen\\_baliokidetza/eu\\_titbalio/tituluen\\_baliokidetza.html](http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/tituluen_baliokidetza/eu_titbalio/tituluen_baliokidetza.html)



*Prestakuntza plana osatzeko beharrezkoa den subrogazioak eragindako langileen euskararen ezagutza eta/edo egiaztagiriei buruzko informazioa eskuragarri jarriko die Kabiak lizitatzailerei.*

*9.- Kontratazio berriak egiteko orduan, kontratatutako pertsonen lanpostu bakoitzerako zehaztutako hizkuntza gaitasun maila egiaztatu beharko dute.*

*Salbuespen gisa, B1 eta B2 profilak egiaztatu behar diren lanpostuetan, 2028. urtera arte aski izango da ahozko trebetasuna egiaztatzea. Data horretatik aurrera lanpostuen maila egokituko da trebetasun bakoitzean Eusko Jaurlaritzak definitzen duen ereduaren arabera.*

*Ahozko trebetasunen egiaztatze prozesuak HABEren bitartez egin ahal izango dira.*

*Gainontzeko lanpostuen kasuan, trebetasun guztiak dituztela egiaztatu beharko dute.*

*10.- SPKLaren 62. artikulua arabera, kontratuaren arduradunak gainbegiratu du Euskara Planaren diseinua eta aplikazioa, beharrezko jarraipena egingo du hizkuntza esparruan berdintasunerako eskubidea behar bezala betetzen dela bermatzeko, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartzeaz gain, beharrezko irizpideak ere ezarriko ditu.*

*11.- Klausula honetan aurreikusitako baldintzak ez bete edo akatsez betetzeagatik, agiri honetako 43. klausulan ezarritako zehapenak ezarri ahal izango zaizkio enpresa kontratistari”.*

**HAMARGARRENA.-** Errekurtso hau ebazteko, aztertu behar da esleipen irizpide gisa balioesten diren ziurtagirien izaera.

Bikain hizkuntza kudeaketako kalitate ziurtagiria (aurrerantzean Bikain ziurtagiria), gehienez ere bost punturekin baloratzen dena, Eusko Jaurlaritzaren 162/2017 Dekretuak arautzen du (2017ko ekainaren 5eko EHAA), esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabileraren, presentziaren eta hizkuntza-kudeaketaren

*Kabia facilitará a las licitadoras la información sobre el conocimiento y/o acreditación de euskera de los y las trabajadoras a los que afecte la subrogación que resulte necesaria para permitir la elaboración del plan de formación.*

*9.- A la hora de realizar nuevas contrataciones, las personas contratadas deberán acreditar el nivel de competencia lingüística establecido para cada puesto de trabajo.*

*De modo excepcional, hasta el año 2028, en aquellos puestos en los que se deban acreditar los perfiles B1 y B2, será suficiente con la certificación de la competencia oral. A partir de dicha fecha, el nivel de los puestos en cada competencia lingüística se adecuará al modelo definido por el Gobierno Vasco.*

*La acreditación de las competencias orales se realizará a través de HABE.*

*En el resto de los casos será imprescindible acreditar todas las competencias lingüísticas.*

*10.- De conformidad con el artículo 62 de la LCSP, la persona responsable del contrato supervisará el diseño y aplicación del Plan de Euskera, realizará el seguimiento para el correcto cumplimiento del derecho a la igualdad en materia lingüística, y tomará las decisiones y dará las pautas necesarias en referencia a ello.*

*11.- Por el incumplimiento o cumplimiento defectuoso de las condiciones previstas en esta cláusula, se podrán imponer a la empresa contratista las penalidades establecidas en la cláusula 43 de este pliego”.*

**DÉCIMO.-** Pues bien, para resolver el presente recurso es necesario analizar la naturaleza de los certificados que se valoran como criterio de adjudicación.

El Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística Bikain (en adelante certificado Bikain), que se valora con un máximo de cinco puntos, se regula por el Decreto 162/2017, de 30 de mayo, del Gobierno Vasco (BOPV de 5 de junio de 2017), con la finalidad de certificar y reconocer el nivel de normalización del uso,



normalizazio maila egiaztatu eta aitortzeko xedez; baita ziurtagiria lortzeko egin beharreko ebaluazio prozesua arautzeko, eta kanpo ebaluazioaren zerbitzua jaso nahi duten erakundeek egin behar duten eskabidea eta bete beharreko baldintzak arautzeko xedez ere (1. artikulua).

Hizkuntza kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistema honetan parte hartu ahal izango dute alor sozio-ekonomikoko entitate pribatuek, osorik edo partzialki, eta sozietate publikoek, baldin eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute; baita 2. artikuluan aipatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek ere.

Hizkuntza kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauea. Grafikoki, laguntza-koadro bat da erakundearen hizkuntzaren presentzia eta erabilera (zerbitzuari eta lan-hizkuntzari dagokienez) zertan gauzatu ohi den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan, baita erabilera-presentzia horien azpian dauden erakundearen barne mekanismoak eta kudeaketa ere. Erreferentzia Marko Estandarrak bi ardatz ditu, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza, eta horietan modu ordenatuan eta integratuan jasotzen dira erakunde bateko hizkuntza baten erabileraren, presentziaren eta kudeaketaren berri ematen duten osagaiak (3. artikulua).

Eusko Jaurlaritzak Bikain ziurtagiriaren hiru egiaztapen maila ezartzen ditu (4. artikulua): Oinarrizko mailako ziurtagiria, lizitazio honetan aurkaratutako esleipen irizpidearen arabera 1 punturekin baloratu dena; tarteko mailako ziurtagiria, 3 punturekin baloratu dena; eta goi mailako ziurtagiria, 5 punturekin baloratu dena.

Hiru mailak ebaluazioan aitortutako euskararen erabilera eta presentziaren neurrikoak dira, baita hartutako hizkuntza irizpideen errotze- eta garapen-mailaren arabekoak ere. Maila bakoitza

presencia y gestión lingüística del euskera en el ámbito socioeconómico, y regular el proceso de evaluación necesario para su obtención, así como la solicitud que deben cumplimentar y las condiciones que deben cumplir las entidades que quieran recibir el servicio de evaluación externa (artículo 1).

En este sistema de evaluación y certificación de la calidad en la gestión lingüística pueden participar las entidades privadas del ámbito socioeconómico, íntegramente o de forma parcial, y las sociedades públicas, siempre que su actividad se desarrolle en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como las entidades públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que se mencionan (artículo 2).

El sistema de evaluación y certificación de calidad en la gestión lingüística cuenta como elemento básico con el Marco de Referencia Estándar (EME), el cual es un marco de trabajo no normativo que recoge de manera esquemática y ordenada el conjunto de elementos en los que se concreta el uso y presencia del idioma en una organización (tanto la lengua de servicio como de trabajo), así como los mecanismos internos de la organización que actúan como catalizadores de los primeros. Los dos ejes con los que cuenta el Marco de Referencia Estándar (lengua de servicio y lengua de trabajo) recogen de manera ordenada e integrada el conjunto de elementos en los que se concreta el uso, presencia y gestión de un idioma en una organización (artículo 3).

Los niveles de certificación del certificado Bikain establecidos por el Gobierno Vasco son tres (artículo 4): Certificado Básico, valorado con 1 punto por el criterio de adjudicación impugnado en esta licitación; Certificado Medio, valorado con 3 puntos; y Certificado Superior, valorado con 5 puntos.

Los tres niveles responden al diferente grado de presencia y uso del euskera constatados en la evaluación, así como al grado de implantación y desarrollo de los criterios lingüísticos adoptados.



Erreferentzia Marko Estandarraren ardatz eta jardun eremu nagusi bakoitzari egokitutako puntuazioaren batuketaren arabera lortuko da. Bi ardatzetako bakoitzak berariazko pisu bat dauka eta desberdina da hartzaile motaren arabera. Puntu guztien batuketa eginda, guztira mila puntuko kopurua ateratzen da, Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoaren arabera, eta dagokion ziurtagiria lortzeko, ebaluazio prozesuan gutxienez 200 puntu egiaztatu behar dira oinarritzko maila lortzeko, 500 puntu erdiko maila lortzeko eta 800 puntu goiko maila lortzeko, betiere entitateek bermatzen badute betetzen dituztela euskara alorrean legediak ezartzen dituen betekizunak.

Eusko Jaurlaritzak doako ebaluazio zerbitzua eskaintzen die hizkuntza kudeaketaren arloan Bikain ziurtagiria lortu nahi duten entitate publiko zein pribatuei (5.2 artikulua).

**HAMAİKAGARRENA.-** Aurkaratutako esleipen irizpideak ere hiru puntu eta puntu batekin baloratzen ditu, hurrenez hurren, Bai Euskarari “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” eta Bai Euskarari “Zerbitzua Euskaraz” ziurtagiriak.

Bikain ziurtagiria ez bezala, ziurtagiri hau ez dago legez eta ofizialki araututa. Ziurtagiri horren jarraipena, sustapena eta ebaluazioa egiteaz arduratzen den Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen web orrian dagoen informazioaren arabera, ziurtagiria tresna bat da enpresek, saltokiek eta era guztietako erakundeek gizarteari erakusteko euskararen normalizazioan egindako lana. Bai Euskarari ziurtagiria, euskararen erabilera arlo sozio-ekonomikoan areagotzeko helburarekin, euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak identifikatu, aitortu eta pausoak ematen laguntzen dituen ziurtagiria da.

Ziurtagiri maila desberdinak eskuratu daitezke: “Euskararen bidean” ziurtagiria: euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta era guztietako

Cada nivel se logrará atendiendo a la suma de puntuación asignada a cada uno de los ejes y ámbitos de actuación principales del Marco de Referencia Estándar, que cuenta con un peso específico y es diferente según el tipo de destinatario. La suma total asciende a mil puntos, según se detalla en el anexo I del Decreto, y para la obtención de la certificación correspondiente se tiene que acreditar durante el proceso de evaluación un mínimo de 200 puntos para obtener el nivel básico, 500 puntos para el nivel medio y 800 puntos para el nivel superior, siempre que las organizaciones garanticen el cumplimiento de los requisitos que establece la legislación en el ámbito del euskera.

El Gobierno Vasco ofrece de forma gratuita el servicio de evaluación para la acreditación del certificado Bikain a las entidades públicas y privadas que lo soliciten (artículo 5.2).

**UNDÉCIMO.-** El criterio de adjudicación impugnado también valora con tres y un punto, respectivamente, los certificados Bai Euskarari “Zerbitzua eta Lana Euskaraz” y Bai Euskarari “Zerbitzua Euskaraz”.

A diferencia del certificado Bikain, este certificado carece de regulación legal y de carácter oficial. Según la información disponible en la página web de la Asociación para la Promoción del Certificado Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea, que realiza las labores de seguimiento, promoción y evaluación de esta certificación, se trata de una herramienta mediante la cual las empresas, comercios y todo tipo de entidades muestran a la sociedad la labor realizada en la normalización de la lengua vasca. El certificado identifica, reconoce y ayuda a las entidades, comercios y empresas que trabajan por utilizar y mejorar el nivel de euskera en el ámbito socioeconómico con el objetivo de fomentar el euskera.

El certificado se puede obtener en uno de los siguientes niveles: “Euskararen Bidean”: dirigido a todo tipo de entidades, empresas y comercios que toman medidas para la normalización del



entitateei zuzendua; “Zerbitzua euskaraz” ziurtagiria: zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua; eta “Zerbitzua eta lana euskaraz” ziurtagiria: euskara lan hizkuntzatzat duten enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzendua.

Maila bat edo bestea lortzeko, irizpide hauek hartzen dira kontuan: 1) langileen hizkuntza gaitasuna; 2) irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia; 3) kanpo harremanak; eta 4) barne harremanak. Irizpide horien betetze mailaren arabera, ziurtagiriaren maila bat edo bestea lortzen da.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen web orrian argitaratutako datu basearen eta maparen arabera, ziurtagiriaren jardura esparrua Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Ipar Euskal Herriak osatzen dute.

**HAMABIGARRENA.-** Ziurtagiri horiek esleipen irizpide gisa balioesteko aukerari dagokionez, Kontratuaren Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO) aukera izan du aztertzeko Bikain ziurtagiri ofizialaren balorazioak betetzen ote duen kontratuaren xedearekin lotura zuzena izateko beharkizuna, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 150.1 artikulua eskatzen zuena.

Hala, AESTE elkarteak aipatzen duen 2014ko azaroaren 20ko 123/2014 Ebazpenaren bidez, KEAOk deuseztatu egin zituen tokiko entitate batek izapidetutako garbiketa zerbitzuko kontratu baten agiritako esleipeneko azpiirizpideak, zeintzuek bi punturekin baloratzen zuten Bikain ziurtagiri ofizialaren arabera hizkuntza politikako sistema baten ziurtagiria izatea; puntu batekin SG 21 arauaren arabera erantzukizun sozial korporatiboko kudeaketa sistemaren ziurtagiria izatea; eta puntu batekin ISO 9001,

euskeraz; “Zerbitzua Euskaraz”: dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen el servicio en euskera; y “Zerbitzua eta Lana Euskaraz”: dirigido a las empresas, comercios y entidades que reconocen el euskera como idioma de trabajo.

Los criterios que se tienen en cuenta para lograr un nivel u otro son los siguientes: 1) capacidad lingüística de los y las trabajadoras; 2) imagen corporativa y paisaje lingüístico; 3) relaciones externas; y 4) comunicación interna. En función del grado de cumplimiento de estos criterios, se obtiene uno u otro nivel.

Según la base de datos y mapa publicados en la página web de la Asociación para la Promoción del Certificado Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte, el ámbito de actuación es el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Comunidad Foral de Navarra y del País Vasco-Francés.

**DUODÉCIMO.-** En cuanto a la posibilidad de valorar estos certificados como criterio de adjudicación, el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (OARC) ya ha tenido ocasión de analizar si la valoración de la certificación oficial Bikain cumple con el requisito de vinculación directa al objeto del contrato que exigía el artículo 150.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

Así, por la Resolución 123/2014, de 20 de noviembre, invocada por la asociación AESTE en su recurso, el OARC anuló los subcriterios de adjudicación de los pliegos de un contrato de servicio de limpieza tramitado por una entidad local que valoraban con dos puntos la “*disposición de la certificación de un sistema de política lingüística según la certificadora oficial Bikain*”, además de valorar con un punto la “*disposición de la certificación del sistema de gestión de responsabilidad social corporativa según Norma*



18001 eta 14001 arauen ziurtagiriak izatea.

SG 21” y con un punto más la “disposición de las certificaciones de las Normas ISO 9001, 18001 y 14001”.

Honako hauek izan ziren deuseztatzeko arrazoiak: Los motivos de nulidad fueron los siguientes:

*“El artículo 150.1 TRLCSP establece que “para la valoración de las proposiciones y la determinación de la oferta económicamente más ventajosa deberá atenderse a criterios directamente vinculados al objeto del contrato”, citando a continuación una serie de ejemplos. El requisito de la vinculación al objeto del contrato se ha venido entendiendo en el sentido de que los criterios de adjudicación deben referirse a los aspectos de la oferta, es decir, a las condiciones bajo las que los licitadores proponen la ejecución de la prestación contratada. En cambio, no caben como criterios de adjudicación los aspectos relativos a la capacidad técnica, económica o profesional de los licitadores, especialmente los referidos a las características de la empresa, los cuales sólo son aceptables como criterios de determinación de la solvencia (artículos 74 y siguientes del TRLCSP), la cual se sustituye por la clasificación en los casos en que, como el analizado, ésta sea preceptiva (artículo 62.1 TRLCSP).*

*En el caso de los certificados cuya posesión se establece como criterio de adjudicación, no hay vinculación con la prestación y sí con las características de la empresa (ver los informes de la Junta Consultiva de Contratación Administrativa del Estado 42/06, 56/04 y 50/06):*

*a) La certificación oficial Bikain “es el certificado oficial, público y gratuito otorgado por el Gobierno Vasco que acredita un nivel determinado de uso, presencia y gestión del euskera por parte de una organización.”<sup>2</sup> Además, es contrario al principio de igualdad que sólo las empresas que ostenten un certificado concreto reciban puntuación, pues se discrimina a los licitadores que tienen el mismo nivel que dicho certificado demuestra y lo pueden probar mediante otro certificado equivalente u otros medios (ver, por ejemplo, los artículos 80.2 y 81.2 TRLCSP, referidos a las certificaciones de garantía o de gestión medioambiental cuando se usan para la acreditación de la solvencia)”.*

#### **HAMAHIRUGARRENA.-**

Entitate kontratatzaileak alegatzen du KEA Oren ebazpen hori aurreko kontratazio araudian oinarrituta dagoela, eta gai horren inguruko erregulazioa aldatu egin dela SPKL berriarekin; izan ere kontratatu beharreko zerbitzuen kalitateari ematen dion garrantzia ezin da konparatu aurreko araudiak ematen zuenarekin.

**DECIMOTERCERO.-** La entidad contratante alega que esta Resolución del OARC se basa en la normativa de contratos anterior y que la regulación en esta materia ha cambiado con la nueva LCSP, pues la importancia que otorga a la calidad de los servicios a contratar no es comparable con la que concedía la anterior norma.

Horrez gain, adierazten du lizitazio espediente haren xede ziren garbiketa zerbitzuak ere ezin direla konparatu kontratazio honen xede diren zerbitzuekin, hizkuntza berdintasuna kontratuaren xedean txertatzeak eta hori baloratzen duten ziurtagiriak kontratuaren xedearekin lotzeak duen garrantziari dagokionez.

Añade que los servicios de limpieza que tenían por objeto aquel expediente de licitación tampoco son comparables a los servicios objeto de la presente contratación, en cuanto a la importancia de integrar la igualdad lingüística y la vinculación de los certificados que la valoran con el objeto del contrato.

Azkenik, entitate kontratatzaileak uste du lizitazio honetan ez dela berdintasunaren printzipioa

La entidad contratante considera, por último, que en la presente licitación no se vulnera el principio

<sup>2</sup> <http://www.euskalit.net/bikain/bikain.php>



urratzen, ez baita Bikain ziurtagiria bakarrik baloratzen, baita Bai Euskarari ziurtagiria ere.

**HAMALAU GARRENA.-** Aurkaratutako esleipen irizpidearen bidez baloratzen diren Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriek egiaztatzen dute, lehen adierazi bezala, zer maila duen enpresa nahiz erakunde batek euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari dagokienez; eta ondorioz, errekurtsogileek eta KEAOk adierazten dutenez, enpresaren funtzionamenduari batez ere eragiten dieten enpresa bakoitzaren ezaugarrien ingurukoak dira, hau da, enpresek kontratua egikaritzeko dituzten gaitasuna, baldintza subjektiboak edo kaudimena egiaztatzen dituzte, baina ez dute loturarik proposamenaren ezaugarriekin edo kontratuaren xede den zerbitzua ematearekin, eta ez dute loturarik ere lizitazioaren xede den zerbitzuaren kalitate handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Beraz, irizpide hau ez da aplikagarria proposamen onena balioesteko orduan, kalitate-prezio erlazioari dagokionez, ez baitu zerikusirik proposamenaren ezaugarriekin, baizik eta enpresa lizitatzailaren baldintza orokorrekin.

Kontuan izan behar da, baita ere, enpresa esleipenduna behartuta dagoela baldintza administratibo berezien agirian kontratua egikaritzeko aurreikusten diren hizkuntza baldintzak betetzera, Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriak izan edo ez; beraz, ziurtagiri horiek edukitzeak ez du zertan ekarri behar zerbitzu hobea ematea.

Gainera, 162/2017 Dekretuak, maiatzaren 30ekoak, ziurtagiria arautzen duenak, 2.1 artikuluan xedatzen duenez, Bikain ziurtagiriaren hartzaileak dira alor sozio-ekonomikoko entitate pribatuak eta sozietate publikoak, baldin eta beren jardura Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren entitateek ezin dute punturik lortu Bikain

de igualdad, toda vez que no solo se valora la certificación Bikain, sino también la de Bai Euskarari.

**DECIMOCUARTO.-** Pues bien, la posesión de los certificados Bikain y Bai Euskarari que se valora por el criterio de adjudicación impugnado acredita, como ya se ha señalado, un nivel determinado de uso, presencia y gestión del euskera por parte de una organización, y en consecuencia, como señalan los recurrentes y el OARC, se refieren a características intrínsecas de cada empresa que afectan básicamente a las peculiaridades de su organización, es decir, acreditan la aptitud, las condiciones subjetivas o la solvencia de la empresa para ejecutar el contrato, pero no guardan relación con las características de la proposición o de la propia prestación del servicio objeto del contrato, ni afectan directamente a la mayor o menor calidad en la prestación del servicio que se licita.

No es relevante, por tanto, ese criterio a efectos de determinar la mejor proposición en atención a la relación calidad-precio, porque no se refiere a cualidades propias de la proposición, sino a circunstancias de la empresa licitadora considerada en su conjunto.

Debe tenerse en cuenta, también, que la empresa adjudicataria está obligada al cumplimiento de las condiciones lingüísticas de ejecución del contrato previstas en el PCAP con independencia de que disponga o no de los certificados Bikain y Bai Euskarari, por lo que la posesión de tales certificados no tiene por qué redundar en una mejor prestación del servicio.

Además, las entidades destinatarias del certificado Bikain son, como ya se ha señalado, las entidades privadas del ámbito socioeconómico y las sociedades públicas, cuya actividad se desarrolle en la Comunidad Autónoma del País Vasco, según el artículo 2.1 del Decreto 162/2017, de 30 de mayo, por el que se regula el certificado.

En consecuencia, las entidades radicadas fuera del territorio de esta Comunidad Autónoma se ven





ziurtagiriagatik.

Gauza bera esan liteke Bai Euskarari ziurtagiriari buruz, izan ere, ziurtagiri horren sustapenerako elkartearen web orrian argitaratutako maparen arabera, bere jarduera esparrua Euskal Autonomia Erkidegora, Nafarroako Foru Erkidegora eta Ipar Euskal Herrira mugatzen da.

Beraz, onetsi egin behar dira errekurtso metatuak eta, ondorioz, baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 19.2.b atala deuseztatu egin behar da, Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriak baloratzen dituen hizkuntza berdintasunaren esleipen irizpideak urratu egiten duelako Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 145. artikuluko 5.a) eta 6. ataletan xedatutakoa, ez baititu jasotzen kontratuaren arabera egin beharreko prestazioak.

**HAMABOSGARRENA.-** Erabakitzeko geratzen da alderdi jakin honen deuseztasunak prozedura osoaren deuseztatzea ekarri behar duen, hartara erakunde kontratatzailea esleipen prozedura berri bat irekitzera behartuta, edo, aldiz, deuseztatutako zatiak erabaki hori hartzeko moduko garrantzi nahikorik ez duen.

Zalantza hau ebazteko aztertu beharko dugu deuseztatutako esleipen irizpidea ezabatzeak urratzen duen ala ez Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 145. eta 146. artikuluetan xedatutako arauen bat.

Bikain eta Bai Euskarari ziurtagiriak esleipen irizpide gisa deuseztatu ondoren, automatikoki ebaluatu beharreko irizpideek (47 puntu) balio-judizio bidez ebaluatu beharrekoek (48 puntu) baino pisu txikiagoa dute. Beraz, Kontratazio Mahaiak ezin ditu irizpide horiek guztiak balioetsi, eta balio-judizio bidez ebaluatu beharreko irizpide horiek aditu kualifikatuen batzorde baten edo erakunde tekniko espezializatu baten esku utzi behar dira (SPKL 146.2 artikulua).

impedidas de obtener cualquier puntuación por el certificado Bikain.

Lo mismo cabe decir del certificado Bai Euskarari, pues según el mapa publicado en la página web de la Asociación para la Promoción de dicho certificado, su ámbito de actuación se limita al territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Comunidad Foral de Navarra y del País Vasco-Francés.

Así pues, los recursos acumulados deben ser estimados y, por tanto, debe anularse el apartado 19.2.b del cuadro de características del PCAP, porque el criterio de adjudicación de la igualdad lingüística que valora los certificados Bikain y Bai Euskarari, vulnera lo dispuesto por los apartados 5.a) y 6 del artículo 145 LCSP, en la medida en que no se refiere a ni integra las prestaciones que deben realizarse en virtud de dicho contrato.

**DECIMOQUINTO.-** Resta por dilucidar si la nulidad de este concreto aspecto debe llevar consigo la del procedimiento entero, lo que obligaría a la entidad contratante a disponer la apertura de un nuevo procedimiento de adjudicación; o si, por el contrario, la parte anulada carece de la relevancia suficiente para adoptar ese pronunciamiento.

Para resolver la cuestión habremos de examinar si la supresión del criterio de adjudicación anulado trae consigo que se incumpla alguna de las reglas contenidas en los artículos 145 y 146 LCSP.

Con la nulidad de los certificados Bikain y Bai Euskarari como criterio de adjudicación los criterios evaluables de forma automática (47 puntos) dejan de tener atribuida una ponderación mayor que la de aquellos cuya cuantificación depende de un juicio de valor (48 puntos). Por consiguiente, la valoración de todos ellos no puede ser efectuada por la Mesa de Contratación, y debe atribuirse la valoración de estos últimos a un comité de expertos cualificados o a un organismo técnico especializado (artículo 146.2



LCSP).

Ondorioz, esleipen irizpide hori deuseztatzeak, kasu honetan, esleipen prozedura guztia deuseztatzea dakar.

En conclusión, la nulidad de este criterio de adjudicación implica, en este caso, la de todo el procedimiento de adjudicación.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### ERABAKITZEN DU

### ACUERDA

Onestea CLECE SA enpresak eta ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SERVICIOS PARA LA DEPENDENCIA (AESTE) elkarteak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso bereziak, eta deuseztatzea Baldintza Administratibo Berezien Agiriko ezaugarrien taulako 19.2.b atalean aurreikusitako hizkuntza berdintasuneko esleipen irizpidea, eta, ondorioz, lizitazio prozedura.

Estimar los recursos especiales en materia de contratación interpuestos por CLECE SA y la ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE SERVICIOS PARA LA DEPENDENCIA (AESTE) y anular el criterio de adjudicación de igualdad lingüística previsto en el apartado 19.2.b del cuadro de características del PCAP, y, por tanto, el procedimiento de licitación.

SPKLak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2018ko azaroaren 19a / San Sebastián, 19 de noviembre de 2018.**